

# BIOTZETIK.

(NERE ADISKIDE MIGEL ANTONIO IÑARRA APAIZ BERRIARI)

Jesús! maite naizaitut  
Bakar eta garbi,  
Zutaz oroitutzean  
Nitaz azturik ni.

\* \* \*

Obi bat zai daukagu;  
Zerua gañean.  
Gañerako guztia  
Da kea aidean.

\* \* \*

Ikusten ditut pobreak,  
Ichiak eliz-ateak,  
Lenbiziko Mezaren zai:  
Eta gero, eguerdian,  
Azken Meza pasatzian,  
Aberats asko datoz... ¡ai!

\* \* \*

Egúnak dijoaz... ¡Zér otz  
Malkorik ez chukatze kotz!

\* \* \*

Lili bat dijoa Zeru-aldera  
Churi ta garbia,  
Zoaz zu ere ¡bai! bere antzera  
Iñarra maitia!

ANTONIO ARZÁC.